

Baliabideak:

- Baliabide fisikoak:
 - Aterkiak egiteko, **fabrika** bat behar dugu eta Martuteneko poligono 27an egongo da, industria gune batean.
 - Bertan, **makinak** erabiliko ditugu produktua ekoizteko.
 - Makina horietan aterkiak egiteko behar ditugun **pieza** guztiak landuko ditugu.
 - Pieza horiek, **material** zehatz batez eginak egongo dira:
 - Burdina
 - Iltzeak
 - Imanak (...)
 - Fabrikaz gain, **lokal** bat izango dugu Grosen.
 - Bertan, **bulegoak** egongo dira eta jendea kontratatuko dugu lan egiteko
 - Bulegoetan, altzariak, idazmahaiak, inprimagailua, ordenagailuak, mugikorrak...
- Baliabide intelektualak: Taldea lau pertsonaz osatua dago beraz, lau abilezi ditugu:
 - Elixabetek bizikletaren inguruan ezagutzak ditu.
 - Andreak salmentarako du gaitasuna.
 - Anak informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak ditu.
 - Amaiak sormena eta aterkiaren diseinua egiteko abilezia du.



- Finantza-baliabideak:

Alde batetik, gure aurrezkietatik bakoitzak diru kopuru bat ipiniko dugu. Diru laguntzak edukiko ditugu Orbea bizikleta enpresak finantzatutakoak.

